Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3040

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 18koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako hirigintzako ikastaroen erakundeetako eta/edo enpresetako praktika-aldia arautzen duena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak 2010eko uztailaren 12ko Ebazpena eman zuen eta, horren bidez, dei egin zen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen menpekoa den Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) 2010ko ekitaldirako Bilbon antolatutako Hirigintzako XXXI. Ikastaroa eta Donostian antolatutako Hirigintzako XXXII. Ikastaroa egiteko (Ebazpena 2010eko abuztuaren 3ko EHAAn argitaratu zen, 148. zenbakian).

Ikastaro horien barruan, erakundeetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko denboraldia ezarri da hirigintza-arloan gutxienez hamabi hileko esperientziarik ez duten ikasleentzat.

Hortaz, bada, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Deialdia.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen menpekoa den Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatu dituen XXXI. eta XXXII. Hirigintzako ikastaroetako ikasleek erakundeetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko deialdia onestea.

2. artikulua.– Helburuak.

2010-2011 ikasturteko iraupen luzeko hirigintzako ikastaroetako ikasleek, hain zuzen, XXXI. Hirigintzako Ikastaroko (Bilbao) eta XXXII. Hirigintzako Ikastaroko (Donostia-San Sebastián) ikasleek hirigintzako gaietan ikasi dituzten ezagupenak erabiltzea sustatu eta bultzatu. Horretarako, aukerako eta borondatezko praktika-aldiak antolatzen dira erakunde publikoetan eta/edo enpresetan, ikasleek zuzenean jakin ahal izan dezaten arlo publikoko hirigintzako jardueraren berri.

Praktikak egiteko joan-etorriak egin behar dituztenentzat, diru-laguntzak ezarri dira.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

3040

RESOLUCIÓN de 18 de mayo de 2011, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se regula el período de prácticas en instituciones y/o empresas previsto en los Cursos de Urbanismo organizados por la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos (EVETU).

En el ejercicio 2010, se dictó la Resolución de 12 de julio de 2010, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública por la que se convocan el «XXXI. Curso de Urbanismo» a desarrollarse en Bilbao y el «XXXII. Curso de Urbanismo» a desarrollarse en Donostia-San Sebastián, organizados por la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos (EVETU), dependiente del Instituto Vasco de Administración Pública (Resolución publicada en el BOPV n.º 148, de 3 de agosto de 2010).

En la estructura de estos cursos se establece un periodo de prácticas en instituciones y/o empresas para los alumnos y alumnas que no tengan experiencia urbanística profesional superior a doce meses en materia urbanística.

Por todo ello,

RESUELVO:

Artículo 1.– Convocatoria.

Aprobar la convocatoria del período de prácticas en instituciones y/o empresas del «XXXI. y XXXII. Curso de Urbanismo» de la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos (EVETU), que depende del Instituto Vasco de Administración Pública.

Artículo 2.– Objetivos.

Promover e impulsar la aplicación de los conocimientos en materia urbanística adquiridos por las alumnas y alumnos de los cursos de Urbanismo de larga duración, en concreto del «XXXI. Curso de Urbanismo» (Bilbao) y «XXXII. Curso de Urbanismo» (Donostia-San Sebastián) durante el curso 2010-2011, con la realización optativa y voluntaria de prácticas en instituciones públicas y/o empresas, para que puedan disponer de un conocimiento directo de la actividad urbanística en el ámbito público.

Para posibilitar el desplazamiento al lugar en el que se desarrollen las prácticas, se establece una subvención para el alumnado que deba cursar las mismas.

3. artikulua.– Onuradunak.

Ikasleek praktikak egin ahal izango dituzte, hala nahi izanez gero. Onuradunak Hirigintzako XXXI. Ikastaroko (Bilbao) eta Hirigintzako XXXII. Ikastaroko (Donostia-San Sebastián) ikasleak izango dira, betiere, deialdi hauetako edo aurreko deialdietako sei moduluetatik gutxienez bost gainditu badituzte eta hirigintza-arloko hamabi hileko lanbide-eskarmenturik ez badute.

Praktikak egiteko ikasleak aukeratzerakoan, bost moduluetan, edota dagokionean sei moduluetan guztira batu dituzten puntuaziorik onenak hartuko dira aintzakotzat. Dena dela, praktikak egin ahal izateko, instituzioek edota erakundeek praktikako langileak edukitzeko eskabidea aurkeztu beharko dute aurrena. Aurreko deialdian betebehar guztiak bete arren haurdunaldia zela-eta praktikak egin ezin izan zituzten ikasleek ere izango dute aukera oraingo deialdi honetan egiteko.

Praktika-aldiak bost hilabeteko iraupena izango du gutxi gorabehera, hau da, 600 ordu iraungo du gutxi gorabehera (kodea: 2010-cu-37, Bilbao, eta 2010-cu-67, Donostia-San Sebastián). Ikasleak hartzen dituen erakundeak eta/edo enpresak eta LHIEk egingo dute praktika-aldien ebaluazioa. Praktikak egiteko esleipendun izan den ikasleak praktika horiek bukatzeko konpromisoa hartu behar du.

Ikasleei erakundeak esleitzeko, moduluetako azterketak balioestean eskuratu duten puntuazioa hartuko da aintzat.

Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren bat edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen bat izan duten pertsona fisikoak ezin dira deialdi honetara aurkeztu, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean sartutako debekuak eta zehazpenak ere barruan direla.

4. artikulua.– Praktiketako ikasleak jaso ditzaketen erakundeak edo enpresak.

Goi mailako unibertsitateko titulazioa eta hirigintzako prestakuntza duten ikasleak praktikak egiteko hartu nahi dituzten euskal administrazio publikoak edo enpresak izango dira erakunde hartzaileak. Praktika-aldia gutxi gorabehera 600 ordukoa izango da (bost hilabete, gutxi gorabehera).

Erakunde eta/edo enpresa hartzaileak ez du inolako erantzukizunik izango praktiketako ikasleak hartzeagatik.

Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren bat edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen bat izan duten pertsona fisikoak ezin dira deialdi honetara aurkeztu, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko

Artículo 3.– Destinatarias y destinatarios.

Las alumnas y alumnos podrán realizar unas prácticas que serán optativas. El alumnado es, exclusivamente, el del «XXXI. Curso de Urbanismo» (Bilbao) y el del «XXXII. Curso de Urbanismo» (Donostia-San Sebastián) que haya realizado y superado al menos cinco de los seis módulos de éstas o anteriores convocatorias o el curso completo y que no disponga de experiencia profesional superior a doce meses en materia urbanística.

Se seleccionará a los alumnos para realizar las prácticas atendiendo a la mejor puntuación obtenida en la suma de los cinco módulos, o de los seis, en su caso. Ahora bien la realización de las prácticas estará condicionada a la existencia de solicitudes de instituciones y/o empresas. Podrán también acceder a las prácticas las alumnas que cumpliendo todos los requisitos para la realización de las mismas en la convocatoria anterior, no pudieron realizarlas por causa de embarazo.

El periodo de prácticas será de aproximadamente cinco meses, equivalente aproximadamente a 600 horas (código: 2010-cu-37, Bilbao y 2010-cu-67, Donostia-San Sebastián). Las mismas serán evaluadas por la institución y/o empresa receptora y por la EVETU. El alumno/a que haya sido adjudicatario/a de las prácticas se compromete a concluir las mismas.

La asignación del alumnado a las diversas instituciones se realizará según el orden de puntuación obtenido en la valoración de los exámenes de los módulos.

No podrán concurrir a la presente convocatoria quienes estén incursos o incursas en prohibición al efecto, o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluida la introducida por la Ley 4/2005 de 18 de febrero de 2005, para la igualdad de mujeres y hombres.

Artículo 4.– Instituciones/empresas que pueden recibir alumnado en prácticas.

En lo que afecta a las entidades receptoras, son aquellas administraciones públicas vascas y/o empresas que quieran recibir a alumnado con titulación universitaria superior y formación urbanística en prácticas durante 600 horas aproximadamente (cinco meses aproximadamente).

La institución y/o empresa receptora estará exenta de cualquier responsabilidad derivada del hecho de acoger alumnado en prácticas.

No podrán concurrir a la presente convocatoria quienes estén incursos o incursas en prohibición al efecto, o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluida la introducida por la Ley

2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean sartutako debekuak eta zehazpenak ere barruan direla.

Goi mailako unibertsitateko titulazioa eta hirigintzako ezagupen teoriko garrantzitsuak dituen pertsona bat hirigintzaren eta/edo ingurumenaren arloan praktikak egiteko hartu nahi duten eta dagokion eskaera egiten duten EAEko erakunde publikoek izango dute lehentasuna praktiketako ikasleak hartzeko. Praktika-aldia gutxi gorabehera 600 ordukoa izango da (gutxi gorabehera, bost hilabete), eta 2011ko abenduaren 31 baino lehen egin beharko da. Ondorio horretarako, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak tokieta foru-erakundeei eta Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuei aukera emango die praktiketako ikasleak edukitzeko. Era berean, hirigintzaren eta/edo ingurumenaren esparruari lotutako enpresek praktiketako ikasleak eduki ahal izango dituzte, erakundeek dituzten baldintza berberekin.

Ikaslea hartzen duen erakundeak edo enpresak praktiketako arduraduna izendatuko du; praktiketako arduraduna praktiketako ikaslea bideratzeaz, zuzentzeaz eta ikuskatzeaz arduratuko da.

Praktikak bukatzean, arduradunak txosten berezi bat egin beharko du alderdi hauek azaltzeko: praktiketako pertsonak bete duen zereginaren zer-nolakoak, lortu duen prestakuntza-maila eta praktika-aldiaren balorazioa. Txosten hori Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolari bidali beharko dio, hilabeteko epean, praktika-aldia bukatzen denetik hasita.

Hala ere, praktikak egin ahal izateko, erakundeek eta/edo enpresek praktikako langileak edukitzeko eskabidea aurkeztu beharko dute aurrena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak Ebazpena emango du, eta bertan finkatuko du zein enpresak edo/eta erakundek hartuko dituzten praktika-aldian ari diren pertsona horiek. Erakunde eta enpresa horiek eskabidea noiz egin duten, horren arabera izango da esleipena; horrez gain, aintzakotzat hartuko da praktikak egin behar dituzten ikasleek eurek aukeratutakoa, bost moduluetan (edo seietan, hala badagokio) guztira batu puntuaziorik onenak batu dituztenek lehentasuna izanda. Berdinketarik badago, zozketa egingo da. Ebazpen horren berri emango da, dagokion jakinarazpena eginda.

5. artikulua.– Praktiken zereginak eta egitura.

Praktiketako ikasleek laguntza teknikoa eta/edo juridikoa emango dute, bakoitzak duen unibertsitateko titulazioaren arabera, hirigintzako gaietan, eta, salbuespenez, erakundeak eta/edo enpresak horrela agintzen badie, ingurumeneko gaietan ere bai.

Nolanahi ere, ikasleek lanbide-jarduera eta funtzionarioen jarduna arautzen dituzten arauak errespetatu beharko dituzte; bereziki lanbide-isilpekotasuna betebetean gorde beharko dute. Hala, beraz, praktiketan

4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la igualdad de mujeres y hombres.

Pueden recibir alumnos y alumnas en prácticas prioritariamente aquellas instituciones públicas de la CAPV que quieran disponer de una persona con titulación universitaria superior y conocimientos urbanísticos teóricos importantes para realizar prácticas en el área de Urbanismo y/o Medio Ambiente durante 600 horas aproximadamente (aproximadamente 5 meses y finalización anterior al 31 de diciembre de 2011), y cursen la solicitud correspondiente. A tal efecto la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos, dará a conocer a las instituciones locales, forales y a otros departamentos del Gobierno Vasco la posibilidad de contar con alumnado en prácticas. También podrán disponer de alumnado en prácticas las empresas vinculadas al ámbito urbanístico y/o medioambiental, en las mismas condiciones que las instituciones.

La institución y/o empresa receptora designará un responsable de las prácticas que encomendará, dirigirá y supervisará a la persona en prácticas.

La persona responsable realizará un informe especificando la labor desarrollada por la persona acogida en prácticas, el grado de preparación mostrado y la valoración que le ha merecido tal periodo, remitiéndolo a la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos en el plazo de un mes desde la finalización del periodo de las prácticas.

La realización de las prácticas estará condicionada a la existencia de solicitudes de instituciones y/o empresas.

La Directora del Instituto Vasco de Administración Pública dictará una resolución en la que se determinará las instituciones y/o empresas que acogerán a las personas en prácticas, de conformidad con el orden de recepción de las solicitudes de dichas instituciones y/o empresas, y teniendo en cuenta la elección de los alumnos en prácticas que hayan obtenido la mejor puntuación en la suma de los cinco módulos, o de los seis, en su caso, resolviéndose los empates por sorteo. Dicha resolución será objeto de la notificación correspondiente.

Artículo 5.– Funciones y estructura de las prácticas

El alumnado en prácticas deberá realizar labores de apoyo técnico y/o jurídico, según su titulación universitaria, en materia urbanística, y excepcionalmente medioambiental, que le sea encomendada por la institución y/o empresa receptora.

En todo caso, los alumnos y alumnas deberán respetar las normas que regulan el ejercicio profesional y funcionarial y, muy especialmente, habrán de guardar escrupulosamente el secreto profesional. Ahora bien,

egindako lanak ez dio ikasleari lanbide-erantzukizunik sortuko.

Praktika-aldia 2011ko abenduaren 31 baino lehen egin behar da.

Praktiken ordutegiak, erakundearen edo enpresaren lan-ordutegiarekin bat etorrita, praktikak egiteko aukera eman behar du; ikasleak zazpi orduko gehienez lanaldia egin behar du egunean, eta guztira gutxi gorabehera 600 orduko praktika-aldia bete.

Ikasleak bi txosten egin behar ditu bera hartu duen erakundean edo enpresan bete duen zeregina azaltzeko. Lehendabiziko txostena 2011ko urriaren 30a baino lehenago entregatu behar du; bigarrena, 2011ko abenduaren 15 eta 20 tartean igorri behar du Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolara.

6. artikulua.– Praktiketako ikasleen poltsa.

Erakundeek edota enpresek 600 ordu gutxi gorabehera, praktikak egiten eman ditzaketen ikasleen zerrenda eskatu ahal diote IVAPen menpe dagoen LHIEEri.

7. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta praktiken ordainketa.

2011ko ekitaldian, 18.000 euro bideratuko dira gehienez XXXI. Hirigintzako Ikastarorako (Bilbao), eta beste horrenbeste XXXII. Hirigintzako Ikastarorako (Donostia-San Sebastián), EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarrita dagoen partidaren kargura.

Aurreikuspenen arabera, 9 ikaslek egingo dituzte praktikak, ikastaro bakoitzeko, eta, hortaz, ikasle bakoitzak 2.000 euro jasoko ditu gehienez. Alabaina, jasotzen diren eskabideen arabera, ikasle gehiago har daiteke, eta, beraz, hala izatekotan, laguntzetarako bideratutako guztizko zenbatekoa hainbanatuko da onartutako eskabide guztien artean.

Praktiken ordainketa dena batera egingo da 2011ko abenduaren 31 iritsi aurretik, hau da, ordainketa bakarra egingo da beka osorik burutu ondoren eta, betiere, egindako praktikei buruz ikasle bakoitzak idatzi behar duen azken txostena aurkeztu ondoren.

Oro har, arau orokor modura, praktikei dagokien laguntza jasotzeko eskubide izateko, beharrezkoa izango da, nahitaez, praktikak erabat bukatu izatea; praktikak amaitu ezean, ez da sortuko inolako eskubiderik.

Ildo beretik, praktikak hasi eta lehendabiziko hamar egunen barruan ikasleren batek praktikak egiteari uko egingo badio, eta horren ordez praktikak egitera doan ikasleak geratzen den praktika-aldi osoa burutu ondoren, praktikak egiteari uko egin dion ikasleak ez du eskubiderik izango.

no podrán incurrir en responsabilidad profesional como consecuencia de la actividad prevista en las prácticas.

El periodo de prácticas se desarrollará antes del 31 de diciembre de 2011.

El horario de las prácticas será aquél que, conforme al horario laboral de la institución/empresa, permita la realización de dichas prácticas, debiendo desarrollar el alumno/a una jornada obligatoria como máximo de siete horas diarias, hasta completar el periodo de 600 horas aproximadamente.

El alumno/a deberá realizar dos informes sobre la labor desarrollada en la institución y/o empresa receptora. El primero lo deberá entregar antes del 30 de octubre de 2011. El último lo hará llegar a la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos entre el 15 y 20 de diciembre de 2011.

Artículo 6.– Bolsa de alumnos y alumnas en prácticas.

Las instituciones y/o empresas podrán solicitar a la EVETU que depende del IVAP, una relación de alumnos y alumnas que puedan efectuar las prácticas durante 600 horas, aproximadamente.

Artículo 7.– Recursos económicos y pago de las prácticas.

Se destina, en el ejercicio 2011, al objeto de subvenir a esta iniciativa la cantidad máxima de 18.000 euros para el «XXXI. Curso de Urbanismo» (Bilbao) y otra del mismo importe para el «XXXII. Curso de Urbanismo» (Donostia) con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

Está prevista la asistencia a las prácticas de 9 alumnas o alumnos por cada curso, por lo que cada persona percibirá como máximo un total de 2.000 euros. No obstante, el número de alumnas o alumnos puede verse superado en virtud del número de solicitudes recibidas, por lo que el importe total destinado a estas ayudas se prorrateará entre el número total de solicitudes admitidas.

El pago de las prácticas se realizará de una sola vez, al final del periodo total de realización de las mismas antes del 31 de diciembre de 2011, tras la presentación del informe final sobre la realización de las prácticas que se elaborará por cada alumno/a.

Como regla general, el derecho a la percepción de la ayuda correspondiente a las prácticas requerirá que las mismas hayan sido realizadas en su totalidad, no generándose derecho alguno en caso contrario.

En este sentido, en el supuesto de que mediare la renuncia de algún alumno o alumna dentro de los diez primeros días de prácticas, y la persona suplente correspondiente completase el período de prácticas

tzen badu, praktikak erabat amaitu direla ulertuko da.

Salbuespen modura, praktikak zati batean egin direla onar daiteke baldin eta, ikaslea hartzeko eta praktikak egiteko ardura duen erakundeari eta/edo enpresari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, ikasleak ezinezko izan duenean praktikak amaitzea: horrelakoetan, egindako praktika-aldiari dagokion zati proportzional ordainduko zaio.

Praktikak egiteko laguntza horrek eta, orobat, ikaslearen egonaldiak eta egiten duen jarduerak ez dute inolako lan-, lanbide-edo zerbitzu-harremanik sortuko ikaslearen eta Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren buru den Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen artean ere; izan ere, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea bera erakunde horrekin lankidetzan aritzea erabaki duena

8. artikulua.– Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Ebazpen honetan aipatzen diren praktikak egingo eta laguntzak jasoko dituzten ikasleek, eskabideak aurkeztu beharko dituzte, I. eranskinean jasotako ereduei jarraiki.

Hauek ere erantsiko dira: NANaren kopia, erroldaegiaztagiria eta eguneratutako curriculum vitaea.

Erakundeek edo/eta enpresek II. eranskinean jasotako eskabidea bete beharko dute.

Eskabideak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariari bidaliko dizkiote, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen menpekoa den Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Eskolaren egoitzara (helbidea: Errekalde Zumarkalea 18, 1.a, 48009, Bilbao; Telefonoa: 94 403 16 00/04; Faxa: 94 403 16 01; www.ivap.euskadi.net; Posta elektronikoa: evetu@ivap.es).

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan aipatutako edozein modutan aurkeztu daitezke eskabideak.

Aurkeztutako eskabidean akatsen bat badago edo eskabideak zehaztasunik gabekoak badira, eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio eta 10 eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko.

9. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

Ikasleek eta erakundeek edota enpresek 31 egun naturaleko epea izango dute deialdi honetako eskabideak aurkezteko, betiere, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

restante, se entenderá que las mismas han sido realizadas en su totalidad.

Excepcionalmente se admitirá la ejecución parcial de las prácticas, y en consecuencia se procederá a abonar al alumno/a la parte proporcional del periodo de prácticas realizado, cuando no pudieran completarse por motivos atribuibles a la institución y/o empresa receptora y responsable de su ejecución.

La citada ayuda, así como la estancia y actividad que desarrolle la alumna o alumno no supone relación laboral, profesional o de servicio del alumno/a con el Instituto Vasco de Administración Pública, de quien depende la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos o del alumno/a con la institución y/o empresa colaboradora, siendo el propio Instituto Vasco de Administración Pública el que acuerda la colaboración con dicha entidad.

Artículo 8.– Solicitudes y documentación a presentar.

Los alumnos y alumnas de las prácticas y ayudas a las que se refiere la presente Resolución deberán dirigirlas, conforme al modelo que se incluye como anexo I.

Se adjuntarán: copia del DNI, certificado de empadronamiento y curriculum-vitae actualizado.

Las instituciones y/o empresas que deseen recibir personas en prácticas deberán cumplimentar la solicitud que se incluye como anexo II.

Las instancias se dirigirán a la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, a la sede de la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos, dependiente del Instituto Vasco de Administración Pública, en la c/ Alameda de Recalde, 18, 1.º 48009 Bilbao, Teléfono: 94 403 16 00/04, fax: 94 403 16 01, www.ivap.euskadi.net, email: evetu@ivap.es .

Asimismo, las solicitudes podrán presentarse en cualquiera de las formas indicadas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En caso de que se advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud se le comunicará a la persona solicitante concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a subsanarlo.

Artículo 9.– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes para acceder a esta convocatoria será de 31 días naturales para los alumnos y alumnas y para las instituciones y/o empresas receptoras a partir, en ambos casos, del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

10. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzen dituen organoa.

LHIEE menpe duen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan jasotako diru-laguntzak kudeatzea.

Lurralde eta Hiri-Ikasketetarako Euskal Eskolako koordinatzaileak izango du, azken batean, ikasleen goi-mailako zuzendaritzaren ardura.

11. artikulua.– Ebazpena.

Deialdi honetan ezarritako diru-laguntzari buruzko ebazpena Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak emango du, EVETUko Kontseiku Errektorearen proposamena ikusita, gehienez bi hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.

Ebazpen horretan bertan, esleipen-hartzaile izango diren ikasleen zerrendarekin batera, ordezkoen beste bat eta argitara daiteke, ikastaldian lortutako emaitzen batez bestekoaren arabera ordenatua, lehen multzokoren batek uko egiten badu ere.

Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie bananbanan, eta, era berean, jendeak horren berri izan dezan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, epe hori amaitu ondoren interesdunari ebazpenaren berri eman ez bazaio, eskabideari uko egin zaiola ulertuko da.

12. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Adjudikazio-hartzaileei praktikak halako edo bestelako erakundetan edo enpresatan egiteko proposatuko zaie, eta onartu beharko dute proposamena. Izan ere, erakundeek edo enpresek ez diote Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolari beti eskaintza bera egiten, eta ez da erraza izaten hartara egokitzea. Hortaz, inork proposamenen bati ezezkoa ematen baldin badio, praktikak egiteko eskabidea atzera botako zaio. Praktika-aldia onartzeaz gainera, onuradunak berariaz onartu beharko du eman zaion laguntza.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Beteginaren 50.2 artikuluak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartuak) ezarritako betebehar guztiak bete behar dituzte adjudikazio-hartzaileek.

Orobat, diru-laguntzak duen helburua bete beharko dute, eta, praktiketara joateaz gain, etekina atera beharko diete.

Onuradunek zorrotz bete beharko dute bidegabe jasotako diru-kopuruak itzultzeko beharra ezartzen duen araubide orokorra; eta, era berean, dagozkien

Artículo 10.– Órgano de gestión de la subvención.

Corresponde a la Dirección del Instituto Vasco de Administración Pública, de la que depende la EVETU, la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

La coordinadora de la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos posee, en última instancia, la alta dirección del alumnado.

Artículo 11.– Resolución.

La resolución de concesión de la subvención será dictada, a la vista de la propuesta elevada por el Consejo Rector de la EVETU, por la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública en el plazo máximo de dos meses a contar desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Dicha Resolución podrá recoger junto a los/as alumnos/as adjudicatarios/as, una lista de suplentes, ordenada según la media de las calificaciones obtenidas en el curso, para el supuesto de que se produjera alguna renuncia por parte de aquellos/as.

La Resolución será notificada individualmente a los interesados/as y publicada, a efectos de general conocimiento, en el Boletín Oficial del País Vasco.

De conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, si una vez transcurrido dicho plazo no se hubiera notificado a la persona interesada Resolución alguna, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud.

Artículo 12.– Obligaciones de las personas beneficiarias.

La persona adjudicataria se compromete a aceptar las propuestas que se le realicen de incorporación a una determinada institución y/o empresa, ya que debe tener en cuenta la demanda que realicen las propias instituciones y/o empresas a la EVETU. Por ello en el caso de rechazar alguna propuesta, se le desestimará en su solicitud de prácticas. Junto con la aceptación del periodo de prácticas, la persona beneficiaria hará aceptación expresa de la ayuda concedida.

Debe cumplir con todas las obligaciones recogidas en el artículo 50.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

Deberán cumplir la finalidad para la que se concedió la subvención, la asistencia a las prácticas y el aprovechamiento de las mismas.

Las personas beneficiarias están sujetas al régimen general sobre obligaciones de reintegro de cantidades indebidamente percibidas, pago de los intereses de

berandutza-interesak ordaindu beharko dituzte, eta berezkoak dituzten eginbeharrak ez betetzeagatik finkatutako zigorrak ezarriko zaizkie.

Hargatik, praktikak egin bitartean arazoren bat sortzen bada eta, hori dela-eta, ikasleak praktikak egiten jarraitzerik ez badu, horren berri eman beharko dio Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolako koordinatzaileari gehienez egutegiko hamar eguneko epean. Jakinarazpena idatziz egingo du. Hamar eguneko epean berariazko jakinarazpenik egin ezik, emandako adjudikazioa baliogabetuta geratuko da.

13. artikulua.– Bateraezintasuna.

Praktikak egiteko laguntzarik ezin izango da eman, baldin eta, diru publikoetatik, eginkizun berbera egiteko laguntzak jasotzen badira.

14. artikulua.– Aseguruak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak aseguru bana egingo die praktiketako ikasleei istripu-, elbarritasun- edo heriotza-kasuetarako.

15. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Deialdi honetako parte-hartzaileen datu pertsonalak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen fitxategi automatizatu batean sartuko dira, behar den moduan tratatzeko, eta, hartara, kudeatu ahal izateko. Fitxategi horrek datu pertsonalak babesteari buruzko legeriak xedatzen duena bete beharko du. Datuen kontra agertzeko, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea baliatu nahi duten pertsonek IVAPen Idazkaritza Nagusira jo dezakete.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa ebazpen hau eman duen organoari jar dakioke edota, bestela, Justizia eta Herri Administrazio sailburuari. Errekurtsoari buruz, berariaz, ebazpenik ematen ez bada, ukatutzat joko da.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 18a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.

demora correspondiente y régimen sancionador aplicable a los supuestos de incumplimiento de las obligaciones que le son propias.

Por ello si a lo largo de la ejecución de las prácticas surgiera algún problema que impida la continuidad de las mismas, el alumno o alumna deberá notificar en el plazo máximo de diez días naturales a la coordinadora de EVETU tal circunstancia. Esta notificación se realizará de forma escrita. La falta de notificación expresa en el plazo de los diez días, supondrá la revocación de la adjudicación realizada.

Artículo 13.– Incompatibilidad.

La concesión de esta ayuda es incompatible con la obtención de cualquier otra subvención o ayuda proveniente de fondos públicos para la misma causa.

Artículo 14.– Seguros.

La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi procederá a asegurar al alumnado en prácticas contra los riesgos de accidente, invalidez o muerte.

Artículo 15.– Tratamiento de datos personales.

Los datos personales de quienes participen en esta convocatoria serán incorporados para su tratamiento a un fichero automatizado del Instituto Vasco de Administración Pública, con el objeto de gestionar la misma. El fichero está sujeto a lo dispuesto en la legislación relativa a la protección de datos de carácter personal. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición las personas interesadas podrán dirigirse a la Secretaría General del IVAP.

DISPOSICIÓN FINAL

Primera.– Contra la presente Resolución de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública podrá interponerse recurso de alzada, según lo dispuesto en el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. El recurso podrá interponerse ante el órgano emisor de esta Resolución o ante la Consejera de Justicia y Administración Pública. La falta de resolución expresa a dicho recurso tendrá carácter desestimatorio.

Segunda.– La presente Resolución surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de mayo de 2011.

La Directora del Instituto Vasco de Administración Pública,
MARÍA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

XXXI. ETA XXXII. HIRIGINTZA IKASTAROETAN AURREIKUSITAKO PRAKTIKETARAKO ESKABIDEA (IKASLEAK)
2010-2011 Deialdia

SOLICITUD DE PRÁCTICAS PREVISTAS EN EL XXXI y XXXII CURSO DE URBANISMO (ALUMNADO)
Convocatoria 2010-2011

1.- Eskatzailearen datuak / *Datos de la persona solicitante*:

NAN *DNI*		Jaiotze data *Fecha de nacimiento*	
Lehenengo abizena *Primer apellido*			
Bigarren abizena *Segundo apellido*			
Izena *Nombre*			
Titulazioa *Titulación académica*			
Unibertsitate-titulua lortu den urtea *Año de obtención de título universitario*			
Zein ikastaroko ikasle den *Alumna/o del*	☐ XXXI. Hirigintzako Ikastaroa (Bilbao) ☐ *XXXI Curso de Urbanismo (Bilbao)*		
	☐ XXXII. Hirigintzako Ikastaroa (Donostia-San Sebastián) ☐ *XXXII Curso de Urbanismo (Donostia-San Sebastián)*		
	☐ Beste Edizio Batzuk / *Otras Ediciones*		
Euskara-maila *Nivel de euskara*	☐ Handia/*Alto* ☐ Ertaina/*Medio* ☐ Txikia/*Bajo* Egiaztatutako titulazioa / *Titulación acreditada*:		

2.- Eskatzailearen helbidea */ Domicilio particular del solicitante:*

Helbidea (kalea., zkia., solairua *Dirección postal (calle, n.º, piso)*	
PK eta herria *CP y población*	
Telefono zenbakia(k) *Número(s) de teléfono*	
Posta elektronikoa *Correo electrónico*	

Baimena ematen dut hirigintza, ingurumen eta/edo lurralde antolamenduaren arloan lan-eskaintza egiten duten erakundeei eta/edo enpresei nire datuak emateko / *Presto mi consentimiento para la cesión de mis datos a Instituciones y/o empresas ofertantes de empleo en materia urbanística, medio ambiental y/o territorial.*

Bai/*Sí* ☐ Ez/*No* ☐

Baimena ematen dut erakundeei eta/edo enpresei nire datuak emateko, prestakuntza-jardueren emaitzei buruzko ebaluazio-inkestak egiteko / *Presto mi consentimiento para la cesión de mis datos a Instituciones y/o empresas para la realización de encuestas de evaluación sobre los resultados de las actividades formativas.*

Bai/*Sí* ☐ Ez/*No* ☐

3.- Zinpeko aitorpenak / *Declaraciones juradas:*

☐ Zin dagit ez nagoela diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen baten, ezta 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legeak ezarritakoetan ere. *Declaro bajo juramento no estar incurso/a en ninguna prohibición o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluida la establecida en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

☐ Zin dagit hirigintza-zerbitzuetan edo horri loturiko lanetan hamabi hilabete baino gehiago EZ naizela aritu. *Declaro bajo juramento que NO dispongo de una experiencia superior a doce meses en servicios de urbanismo o actividad profesional directamente vinculada al mismo.*

☐ Zin dagit eginkizun berbera egiteko diru publikoetatik beste diru-laguntzarik jasotzen ez dudala. *Declaro bajo juramento que no recibo ninguna otra subvención o ayuda proveniente de fondos públicos para la misma causa.*

ESKATZEN DU/*SOLICITA*:

☐ Hirigintzako praktikak egitea / *Realizar las prácticas de urbanismo*

Oharrak/*Observaciones*

Izaera pertsonaleko datuen politikari dagokionez, baimena ematen dut nire datuak 15/1999 Legean eta haren erregelamendu-garapenean eta Eusko Jaurlaritzak hartutako beste hainbat xedapenetan jasotzen den eran eta haietan ezartzen diren zuzeneko mugekin erabil daitezen. Baimena ematen dut arestian adierazitako eta IVAPen datu-basean ageri diren nire datu pertsonalak, LHIEEri dagokionez, honetarako balio dezaten: IVAP-LHIEEren ikastaro eta bekak kudeatzeko, deialdian ezarri moduan.

Izaera pertsonaleko nire datuak ematean, inolako zalantzarik gabe baimentzen dut IVAPek datuon trataera informatizatua egitea edo ez, arestian aipatutako xedeetarako. Era berean, berariazko baimena ematen dut IVAPen erabiliak izateko jakinaraz daitezen, arestian aipatutako zerbitzuak eskaintzeko bada.

En cuanto a la política de protección de datos de caracter personal, consiento que mis datos sean utilizados en la forma y con las limitaciones directas que recoge la Ley 15/1999 y su su desarrollo reglamentario y las diversas disposiciones adoptadas por el Gobierno Vasco. Consiento que mis datos personales arriba indicados y obrantes en las bases de datos del IVAP, en lo relativo a la EVETU, sirvan para gestionar los cursos y becas del IVAP-EVETU, conforme a lo establecido en la convocatoria.

Al facilitar mis datos de carácter personal consiento inequivocamente el tratamiento informatizado o no de los mismos por el IVAP para los fines anteriormente citados. Asimismo presto mi consentimiento expreso para que mis datos puedan ser comunicados para su utilización en el IVAP con el fin de la prestación de los servicios antes indicados.

Lekua eta data / *Lugar y fecha*

Izp./*Fdo.*

Deialdi honetara biltzen diren eskatzaileek onartu egiten dute ebazpenaren helburua betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Hori dela eta, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea dagokienez ere.

Inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak datu pertsonalen fitxategi automatizatu baten barruan sartuko dira, eta fitxategi horren helburua IVAPek antolatutako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak kudeatzea izango da. Fitxategi honen arduraduna IVAPeko zuzendaria da. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak arautu duen moduan, datuetara heltzeko, datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatu nahi izanez gero, jo ezazu Idazkaritza Orokorrera: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Los solicitantes que participen en esta convocatoria autorizan el procesamiento de datos personales llevado a cabo para el cumplimiento del objetivo de esta Resolución. De igual manera, autorizan la recogida de datos y puesta a disposición de los entes públicos correspondientes.

Los datos personales contenidos en este formulario formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de cursos de formación y perfeccionamiento organizados por el IVAP. La responsable de este fichero es la Directora del IVAP. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición regulados por la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre podrán dirigirse a la Secretaría General: c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

HERRI-ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA
ILMA. SRA. DIRECTORA DEL INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Errekalde zumarkalea, 18 - 1, 48009 Bilbao. Tel. 94 403 16 00/04. Fax 94 403 16 01
www.ivap.euskadi.net Email:evetu@ivap.es

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

HIRIGINTZAKO XXXI. ETA XXXII. IKASTAROETAKO IKASLEAK PRAKTIKAK EGITEKO HARTU NAHI DITUZTEN ERAKUNDE ETA/EDO ENPRESEN ESKABIDEA (ERAKUNDE ETA/EDO ENPRESAK)
2010-2011 deialdia

SOLICITUD DE INSTITUCIONES Y/O EMPRESAS PARA ACOGER EN PRÁCTICAS A ALUMNOS y ALUMNAS DE LOS XXXI Y XXXII CURSO DE URBANISMO (INSTITUCIONES Y/O EMPRESAS)
Convocatoria 2010-2011

1.-Erakundearen edo enpresaren datuak */ Datos de la institución o empresa solicitante:*

Erakunde edo enpresa *Institución o empresa*	
Helbidea *Dirección*	
IFK *CIF*	
Alkatearen izena eta/edo enpresaren arduraduna *Nombre del alcalde y/o responsable de la empresa*	
Nork egiten du eskabidea *Quién realiza la solicitud*	
Praktiken tutorea *Tutor de las prácticas*	
Telefono zenbakia(k) *Número(s) de teléfono*	
Fax zenbakia(k) *Número(s) de fax*	
E-maila *E-mail*	
Web orria *Página web*	

2**.-** Zinpeko aitorpena / *Declaración jurada:*

☐ Zin dagit ez nagoela diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen baten, ezta 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legeak ezarritakoetan ere.
Declaro bajo juramento no estar incurso/a en ninguna prohibición o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluida la establecida en la Ley 4/2005 de 18 de febrero de 2005, para la igualdad de mujeres y hombres.

ESKATZEN DU/*SOLICITA*:

☐ Praktikak egiteko ikasleak jasotzea / *Recibir alumnas y alumnos en prácticas,*

Zenbat ikasle eskatzen den / *N.º de alumnos y alumnas solicitados*: .....

Bete behar duten titulazioa / *Titulación requerida*: .....

Euskararen ezagutzak / *Conocimientos de euskara:* .....

Oharrak/*Observaciones*: .....

Lekua eta data / *Lugar y fecha*

Izp./*Fdo*.

Deialdi honetara biltzen diren eskatzaileek onartu egiten dute ebazpenaren helburua betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Hori dela eta, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea dagokienez ere.

Inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak datu pertsonalen fitxategi automatizatu baten barruan sartuko dira, eta fitxategi horren helburua IVAPek antolatutako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak kudeatzea izango da. Fitxategi honen arduraduna IVAPeko zuzendaria da. Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak arautu duen moduan, datuetara heltzeko, datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatu nahi izanez gero, jo ezazu Idazkaritza Orokorrera: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Los solicitantes que participen en esta convocatoria autorizan el procesamiento de datos personales llevado a cabo para el cumplimiento del objetivo de esta Resolución. De igual manera, autorizan la recogida de datos y puesta a disposición de los entes públicos correspondientes.

Los datos personales contenidos en este formulario formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de cursos de formación y perfeccionamiento organizados por el IVAP. La responsable de este fichero es la Directora del IVAP. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición regulados por la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre podrán dirigirse a la Secretaría General: c/Donostia-San Sebastián, 1 -01010 Vitoria-Gasteiz.

HERRI-ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA
ILMA. SRA. DIRECTORA DEL INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Errekalde Zumarkalea, 18 - 1, 48009 Bilbao.-Tel. 944 03 16 00/04. Fax. 94 403 16 01
www.ivap.euskadi.net Email:evetu@ivap.es